

OLINPIAR JOLASAK LOS ANGELES 1984

1. Gogoeta batzuk

Abuztuaren 12an amaitu ziren Los Angeles-ko 1984.eko Olinpiar Jolas ikusgarriak. Milioika pertsonak ikusi ahal zituzte, telebista bitarteko zela, bizitasunez, kolorez jantzitako irudiak, herri-zaletasuna eta handitasuna zerizkiela; benetan «Made in America» esan behar, hango kutsua baitzuten alde gutzietatik.

Greziarrek, kiroldegian lasterketak egiteko bakezko pausarte hauek asmatu zituztenean, garaileen saria olibo-adarra izan ohi zen. Bakezko portaeraren adierazgarritzat jotzen zen, inor lurrera bota gabe korrika egitea, ondokoak edo aurkakoak oztopatu gabe zaltatzea, norbere sasoia eta gorputzaldi bikaina erakustearren bakarrik norgehiagoka aritzea.

Aro berrian Olinpiar Jolasak berriztatzerakoan ere, edu horretako asmoak ziren nagusi guztien gogo-bihotzetan: adiskidantzako pausarteak sortu, herri batzuren eta besteren artean lehiaketa eta dema leialak ospatuz.

Baina laster hasi ziren gauzak lorrintzen, zoritxarrez. Behin batez Hitler izan zen, arrazakeria-haizeek jota, Olinpiar Jolasen dirdira lausotzen zuena. Beste behin, talde batek, Munich-ko kiroldegia odolez gorri utzi zuen. Gero, sovietarrek Afganistan-en

egindako erasoketa gogorki salatzearren, Olinpiar Jolasez baliatu ziren ipar-amerikarrak; eta orain, abagundea iritsi orduko, haiek beste horrenbeste eginez eman die ordaina amerikarrei... Hitz batez, Jolas hauen oihartzuna harrigarria denez gero, horretaz baliatuz ihardепен politikoak ugaritu egin dira han eta hemen. Jakina denez, honelakoetan, joan ezinik geratzen diren kirolariak eurak izaten dira beti galtzaile. Nazioarteko kirol-ospakizun guztietan ezinbestekoa da politika ere hor gurutzatzea, Españan ospatu ziren munduko futbol-txapelketetan bezala.

Diru-kontua da Jolasen beste alderdi bat...

Ezin ederragoa zen Coubertin barioaren asmoa Olinpiar Jolasak berriztatzerakoan. Kirolari gazteen norgehiagoka leialez herrien arteko harremanak sendotzea zen xedea. Denborak eta badaezpadako zalekeriek orbandu dute hain gogo onez hasitakoa. Oraindik zutik dago asmo jatorra, baina orain dela hilabete gutxi batzuk Juan Paulo II. Aita Santuak adierazitako arriskua ere hortxe dago mehatxuka: ez daitezala helburuak azpikozgora jarri; ez dadila gizona kirolaren menpeko egin, alderantziz baizik: kirola gizabaloak lantzeko eskola egokia gerta dadila; burrukarako eta -zergaitik ez?- apaltasunerako ahalmena lortzeko bide izan dadila. Gero eta gero ere, batek bakarrik irabazten du kiroldegian.

2. Berri aipagarria

Los Angeles-ko Jolas hauek ezer adierazgarririk izan badute, zera da: milaka urtetan jolasak ospaturik, egundo lehenengoz antolatu direla federazioko, estatuko edo udaleko administraritzak txakur txikirik ere eman gabe. Elkarte pribatu baten gain joan da zama osoa. Egin beharreko guztia beronek egin du: kiroldegiak baldintza egokietan jarri, beharrezko zen dirua eskuratu eta hutsunerik izan ez dadin kontuz ibili.

Superavit egongo da, eta gainezkako hau kirol-antolakizunetarako emango da. Hau ez da irabazpide bat izan;

honela, -Montrealen gertatu zenez- zerga ordaintzen duen herria gehiegi estutu gabe eta aurreko guztietan bezala, Estatuari laguntzarik eskatu gabe Olinpiar Jolasak egin daitezkeela egiztatu da. Urrats ederra!!

3. Kirol-emaizak

Carl Lewis izan da, noski, izarrik dizdiratsuena eta atletismoan lorturiko urrezko lau dominaz guztiak aho-zabalik utzi dituena. Honelako izadiko mirari bat, indar harrigarria duen gizona, bizkorra, bizia eta zalua, asko aritua, sikologi aldetik menderakaitza... honelako bat bakarrik izan daiteke lau urrezko domina eskuratzeko gai, Jesse Owens miresgarriaren marka berdintzeko eta haren erronkari erantzuteko gai.

Hamairu proba egin zituen Lewis-ek lau dominak irabazteko. Kanporaketa-probetan ere buru-buruan ibili zen beti eta ez zuen honelakorik ere irabazi barik utzi. Argi eta garbi agertu zuen bere nagusitasuna, ikusleen arreta ere ia galtzeraino, nahi zuenean eta nahi zuen modura irabazten baitzuen.

Antzeko zerbait gertatu zen, baina era apalagoan, Edwin Moses-k 400m. oztopoetan lortutako garaipenez; Alberto Covala-k 10.000 metrotan edo eta Said Aouita-k 5.000 metrotan lortutakoaz.

Emakumeen artean, luzeran Errumania-ko Stanciu-k eta 100 metrotan Ashford-ek lortutako urreak guztien gogotan zeuden eta inor ez zen harritu.

4 x 1.000 metrotan Estatu Batuetako laukoteak erakutsitako nagusitasuna harrigarria izan zen, hirurehuneko bihurtunean Calvin Smith nabarmentzen zelarik eta azken 200 metrotan Carl Lewis. Bien artean munduko marka ondu zuten.

Urrezko hiru domina errebalioza izan zen Valerie Brisco-Hooks-entzat; eta goidurako jauzian Ulrike Meyfarth-en garaipe-

na, gazte-gazte zela Munich-en urrea lortu eta 12 urte geroago.

Lehenengo aldiz egin dute maratokia emakumeak, Joan Benoit irabazle izanik. Unkigarria izan zen proba honetan Suiza-ko Gaby Andersen-en irudia, dena beharrea eta erdi-hiliek helmugan sartzen. Ikuskizun itzela izan zen miloika teleikuslerentzat.

Historiako domina izango da Nawal El Moutawakil-ek lortutakoa, Marruecos-ek inoiz lortu duen urrezko lehenengoa baita.

Euskaldunen artetik gauzak nahiko ondo. Argi geratu da arraunlaritza dela hemen nagusi. Lemazain gabeko bikoteetan Lasurtegi eta Climent-ek zilarrezko domina lortu zuten.

VALERIE-REN OTOITZA



Valerie Brisco-Hooks, 400 metrotan urrezko domina lortu zuen atleta bikaina, otoitzean hasi zen helmuga iritsi bezain laster.

Gogoz kontra, 14 urte zituela hil zuen bere ahizpa nagusiaren aldeko otoitza zen.

«Hura ere atleta zen -adierazi zuen Valerie-k- eta haren heriotz unean bertan Olinpiar Jolasetako urrezko domina bat berari eskaintzea agindu nion neure buruari eta etxekoei».